

Alavés y Osasuna, con Martin Ttipia

El pasado 5 de abril, las peñas del Deportivo Alavés y Osasuna, IRAULTZA 1921 e INDAR GORRI, celebraron un acto de hermanamiento en Gasteiz, en MARTIN TTIPIA LEKUA. De allí marcharon en kalejira para seguir el partido en el estadio de Mendizorrotza. El acto fue un encuentro entre dos grupos deportivos que, junto a su afición, quisieron manifestar su memoria y sus vínculos.

El representante alavés de IRAULTZA 1921 explicó: *“creemos que un pilar clave para la construcción de ese nuevo Estado es el conocimiento de nuestra historia y la destrucción de toda esa falsa historia, impuesta por los mismos que nos conquistaron a sangre y fuego hace 800 años y crearon esa artificial frontera entre nosotros, entre lo “Navarro” y lo “Vasco”; nosotros no entendemos lo uno sin lo otro y viceversa”*. Terminó la intervención con un recuerdo para *“Martín Ttipia y quienes defendieron Vitoria, al igual que sus hermanos en Amaiur, Noain, Iruñea, Hondarribia... Su Reino, nuestra Patria: Nafarroa.”*

Iñigo Larramendi, de MARTIN TTIPIA K. E., añadió que los conquistadores *“construyeron una frontera que aún hoy sigue vigente. Sí, una frontera política; pero, sobre todo, una frontera que está sólidamente anclada en la conciencia de la población vasco-navarra”*. Recordó que *“nos corresponde escribir el libro de nuestro futuro”*, teniendo que optar para ello entre *“dar por bueno lo que siempre nos han contado”*, o *“por nuestra cuenta, descubrir la realidad [...] y, en base a ello, construir un futuro más libre”*. Llamó, pues, a no animar *“a los equipos de dos territorios diferentes, sino a dos equipos de un mismo pueblo [...] euskaldunes y navarros/as, sin fronteras internas”*.

Noaingo martxa 2017, memoria eta ondarea uztartzen



Urtero bezala, aurten ere Noaingo gudua gogoratuko dugu Nabarralde Fundazioko kideok. Noaingo martxak, gure herriaren historiaren gertakaririk erabakigarrienetako bat gogoratzea du helburu, hau da, Nafarroako erresumak bere askatasunaren alde libratutako azken borroka handia. Hala, Nafarroako subiranotasunaren azken hatsetako bat izandako gertakari hau, herriaren boterearen eta indarraren aldeko egun bilakatu nahi du Nabarralde, horretarako parte-hartze zabala bilatuz.

Nabarralde duen helburu nagusiarekin bete-betean bat egiten duen ekimena da Noaingo mar-

Aurten, elkar lotutako bi gertakari ekarriko ditugu gogora: alde batetik, Katalina Nafarroako azken erreginaren heriotzaren 500 urteurrena

txa, hau da, gure herriaren iragana gogoratzea, berreskuratzea eta interpretatzea, gure identitatearen oinarria ulertzeko eta inoiz kontatu ez diguten errelatoa osatzeko.

Aurten, elkar lotutako bi gertakari ekarriko ditugu gogora: alde batetik, Katalina Nafarroako azken erreginaren heriotzaren 500 urteurrena. Katalina I. Nafarroako erregina izan zen 34 urtez, eskubidez zuen boterea bere senarrarekin, Juan Albretekoarekin, partekatu zuelarik. Ez zen aginte erraza izan. Gerra zibilak jotako lurraldea jaso zuten eta 1507an barne giroa baretzea lortu zutenean, Fernando Katolikoaren

erasoak eta konkista saiakerak jasan behar izan zituzten. Azken honek, aski ongi dakigun bezala, 1512an lortu zuen bere helburua.

Katalinak 14 seme-alaba izan zituen: horietatik 9 egungo Nafarroako lurretan sortutakoak eta gainontzekoak Bearnen, bertan igaro baitzituen bere azken urteak. Denetatik 8 hiltzen ikusi zituen erreginak, horietako gehiengoak euren bizitzako lehenengo urteetan. Enrike, bederatzigarren semea izango zen erreinuaren eskubideak oinordetzan jasoko zituen Enrike II. Zangozarra bezala (1503-1555).

Nafarroako erreinu independentearen azken erreginaren heriotzaren urteurrenaz gain, lurralde honetan erabakigarria izan zen gertakari bat gogora ekarriko dugu: Nafarroako erreinuaren defentsarako gaztelu sistemaren suntsiketaren hasiera, Cisneros kardinalaren aginduari jarraituz.

1517 urte latza izan zen Nafarroako erreinuarentzat, dudarik gabe, euskaldunon azken estatu independentearen gianbeheraren hasiera izan zelako. Uztailaren 18an berriro ekingo diogu birgogoratze ariketari eta gurekin ospakizunean parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu denei.

NOAINGO MARTXA 2017 (Noain-Getze)
Gure ondarea, gure memoria • Katalina Nafarroakoa (1517-2017)

Programa:

11.00 Martxaren abiatzea Noaingo Guduaren plazan (Noain)
12.30 Pregoiaren irakurketa Noaingo Guduaren monumentuan (Getze)
13.00 Daniza erakustaldia Getzeko plazan
14.00 Bazkaria Getzen

Bazkarirako izen-ematea Nabarralderen webgunean

“Es imposible valorar el patrimonio que se perdió con la destrucción de los castillos navarros”

Nabarralde Fundazioa conmemorará un año más la batalla de Noain, con la celebración de la marcha que lleva el mismo nombre. Bajo el lema Gure ondarea, gure memoria. 500 años de la destrucción de los castillos de Nafarroa la conmemoración se realizará entre Noain y Getze, y tomará como punto central el monumento a la batalla de Noain realizado por Joxe Ulibarrena. Hablamos con Marian Pérez, miembro del comité organizativo del evento.

Nabarralde

Este año se presentan unos cambios en la celebración de la marcha de Noain. ¿Cuándo y cómo se va a celebrar?

El cuando casi nos viene impuesto, el sábado día 1 de julio, por no coincidir con otras series de eventos que tienen lugar en otros herrialde el 24. El como puede resultar novedoso para personas que no han seguido la trayectoria desde el principio, pero lo cierto es que se vuelve a los orígenes, dando protagonismo al lugar de los hechos. Ya el pasado año, el vicepresidente del Concejo de Getze nos lo sugirió, y hecha la valoración aceptamos.

¿Cuál es el objetivo de la conmemoración de la batalla de Noain?

El objetivo, en realidad, siempre es el mismo, recordar un hecho que ha marcado la historia de un pueblo, condicionando su desarrollo: la batalla de Noain de 1521. En dicho enfrentamiento, el Reino de Navarra luchó por la recuperación de parte de sus tierras invadidas. Fue uno de los últimos intentos de defender la soberanía del pueblo frente a la invasión de los conquistadores. Hoy, queremos convertir este evento en una reivindicación del poder del pueblo, por lo que buscamos una amplia participación.

En cada edición se suele escoger un tema, un hecho his-

tórico decisivo de la historia de Nafarroa. ¿Qué se quiere recordar, concretamente, en esta edición?

Efectivamente, no faltan acontecimientos en nuestra historia. Este año es el aniversario de la muerte de la reina Catalina de Foix. Por si fuera poco, se dio cumplimiento a la orden emitida por el cardenal Cisneros de destrucción de castillos y fortalezas del sistema defensivo del reino de Navarra.

¿Quién era Catalina de Foix?

Catalina de Foix con quien casó Juan de Labrit, señor de Albret, fue reina heredera de Navarra tras la muerte de su hermano Francisco Febo. Elevados en el pabes una vez jurados los Fueros en la Catedral de Pamplona en enero de 1494. Su principal objetivo fue conseguir hacer de Navarra un reino fuerte. Para ello se propusieron una integración adecuada de todas sus posesiones de ambas vertientes del Pirineo, recuperar las poblaciones, tierras y fortalezas que ilegalmente habían sido enajenadas del reino, ordenar la administración y reinstaurar la justicia. Fernando el Católico frenó el intento en septiembre del mismo año, apoyando al conde de Lerín, terminaron con la escasa guarnición que defendía el reino, obligó a firmar una paz humillante y se llevó como rehén a la princesa Magdalena. El intento de reformar el conjunto del Estado, renovando el Fuero y

El objetivo es recordar un hecho que ha marcado la historia de un pueblo, condicionando su desarrollo: la batalla de Noain de 1521



el conjunto de instituciones de acuerdo don las Corte, fue abortado por la conquista.

expansionistas de dos grandes potencias como Castilla y Francia.

1517 fue un año decisivo dentro del proceso de la conquista. ¿qué supuso para el sistema defensivo navarro?

¿Cómo valorarías la pérdida de esos castillos en término de patrimonio?

Lógicamente, pérdida de refugio y capacidad defensiva ante las continuas agresiones, aunque realmente, poco podía hacer el reino de Navarra ante las ansias

Imposible valorar el patrimonio perdido, castillos como el de Ujue, Monreal, Santacara, las muralla de Tudela y Estella y tantos. ¿Cómo evaluar aquello que no se ha conocido?



AUSA GAZTELU MENDI MARTXA

Maiatzaren 1ean • Larreen Irekitze Eguna

Pausoz-pauso,
nabar memoria berreskuratzen

09:00etan, martxaren irteera Larraitzetik

11:30etan, omenaldia

13:00etan, ekitaldi nagusia Larraitzen

14:30etan, bazkaria.

Cuestión de estados



Luis María Martínez Garate

Adrian Hastings en su libro “La construcción de las nacionalidades” (2003) defiende la tesis de que las mugas de un mapa actual de Europa no diferirían demasiado de las de los estados que se fueron construyendo desde el comienzo de la Baja Edad Media. Algunas se perdieron por completo, como Borgoña; otras mantienen su integridad estatal como Portugal o Francia; y están las que, como Navarra o Escocia, siguen manteniendo sus rasgos nacionales y aspiran a ser de nuevo sujetos políticos en la realidad mundial.

El Estado moderno es aliado de los nacionalismos decimonónicos. Eso no quiere decir que los reinos –estados– medievales y de la Edad Moderna no “nacionalizaran” sus sociedades, pero este fenómeno se aceleró de modo

brutal en el siglo XIX cuando convergen ambos procesos. Navarra, con gran diferencia de Escocia, se encontraba en la Edad Media en un lugar central de Europa desde el punto de vista geoestratégico. La supremacía europea a finales del siglo XV se jugaba entre la monarquía francesa y la castellana, luego española. Navarra era un elemento clave en esta contienda. La conquista de 1512 y la posterior ocupación por parte española es una lucha que involucra tres estados: el español y el francés que se disputan la hegemonía europea y el navarro que es quien sufre las consecuencias del conflicto.

Para España la ocupación y dominio de Navarra es un elemento estratégico de primer orden. Lo fue desde el siglo XIII, sobre todo por la salida de Castilla al mar, pero en la Edad Moderna se incrementó su interés a causa del combate por la citada hegemonía

Para España la ocupación y dominio de Navarra es un elemento estratégico de primer orden

europaea. No es casual el retroceso lingüístico y cultural de Navarra tras la conquista y ocupación de 1512.

El final del siglo XVIII y todo el XIX constituyen la etapa de consolidación del Estado moderno y, en nuestro caso, Francia lo consigue con notable éxito tras durísimos procesos de asimilación y destrucción de los países “in-

corporados” a su monarquía, que incluye la parte correspondiente de Navarra. Mientras tanto España, siempre con la “marca España” por delante, lo hace de forma mucho más chapucera. Los restos del tercer Estado en discordia – Navarra- se rebelan contra ella y provocan dos guerras.

La etapa de consolidación del Estado moderno va unida a una ideología que es el “nacionalismo”. Javier Esparza dice en su artículo “Navarra, cuestión de Estado” (El Mundo 27/03/2017), “el nacionalismo es insaciable por naturaleza”. El suyo, sobre todo. Lo es el nacionalismo francés por su lado, pero el español, el de Esparza, tampoco se queda rezagado. Emplea todas las armas a su alcance –legales, ilegales, paralegales- para imponer su dominio imperial.

Navarra puede aparecer como un problema “residual” para el Esta-

do francés, aunque la “grandeur” y la “unidad de la República” siempre se deberán mantener por encima de cualquier veleidad de los “terroirs”, de las “provincias”. En cambio, para el español es casi un conflicto de supervivencia. Con una Cataluña que se les está escapando a marchas forzadas, una Vasconia con aspiración a constituirse es sujeto político, en Estado, sería la puntilla de su implosión. Por eso quieren mantener a Navarra neutralizada dentro de la banalidad provinciana española. Si ambas naciones pirenaicas lograran su emancipación, aparecería en el mapa del mundo un nuevo “Estado fallido”, el español.

A propósito del citado artículo del presidente de upn, Javier Esparza, conviene recordar aquello que decía Montaigne en el tercer volumen de sus “Ensayos”: “*Nadie está libre de decir necedades, lo malo es decir las con esmero*”.

Deskonkista

Patxi Olabarria

Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik dokumentala ezinbesteko testigantza da gure eskualdearen historia ezagutu eta gaur egungo egoera ulertzeko.

Gipuzkoa oraindik existitzen ez zeneko garaia islatzen da bertan. Nafarroa zen hau eta Deba ibaiaren inguruko lurraldea tenentzia bat zen, Aizorrotzeko tenentzia, eta Atxorrotzeko gaztelutik zaintzen zen Arabako lautadatik itsasorako pasabidea.

Garai hartan gure eskualdea elizaurretan zegoen egituratuta,

adibidez Oxirondokoa eta Ariznoakoa gaur egungo Bergaran, eta Uzarragakoa gaur egungo Antzuolan. Elizaurre hauetako herritarrak asanbladan elkartzen ziren elizpe edo eliza aurretan; hortik dator *elizaurre* izena.

Baina, 1200. urtean Gaztelako Alfonso VIII.aren tropek armen bidez konkistatu zuten eskualdea eta indarkeria horren arrastoak aurkitu dira Atxorrotzeko gazteluan. Orduetik konkistatuak gara, gelditzeko etorri zen herri arrotz baten menpe.

Armak erabiltzeaz gain, Gaztelako Alfonso X.ak hiribilduak sortu zituen

Gipuzkoa oraindik existitzen ez zeneko garaia islatzen da bertan

konkistatutako lurrak lotzeko: 1260an *Arresateko* elizaurrea *Montdragon* hiribildu izendatu zuen eta 1268an Ariznoakoa *Villanueva de Vergara*.

Hiribildu hauek zerga gutxiago ordaintzea bezalako pribilegioak zituzten eta inguruko elizaurreei hiribildu hauetara batzeko eskaintza egin zitzaizkion batu ziren *Villanueva de Vergara* Oxirondokoa (1348) eta Uzarragakoa (1391), eta *Montdragonera* Uribarri, Garagartza, Udala eta Gesalibarkoa (1353).

Hauxe da konkistatzaileen estrategia, armekin zapaldu eta diruarekin jendea erosi.

Hala ere, konkistatuak bai, baina ez menderatuak. Guk ez daukagu beraiekiko dependentziarik, beraiek daukate gure beharra.

Gallardonek ministro zela garbi esan zuen: “Kataluniarik eta Euskal Herririk gabe ez gara ezer”. Ondorioz, dependentziarik ez badugu, *independentzia* eskatzetik pasa gaitezten *deskonkista* lortzera.

GOIENA

Repensar el espacio

Ángel Castiñeira

Las categorías del espacio/tiempo constituían, en la concepción kantiana, las formas a priori de la sensibilidad externa (e interna. Nota de traductor*), es decir, la condición de posibilidad para nuestra percepción o experiencia sensible del mundo físico.

Si nos fijamos en la literatura de pensamiento reciente, se diría que la dimensión temporal ha ganado en interés a la preocupación por el espacio. Quizás esto ocurre porque, según Kant, el tiempo es la dimensión imprescindible para la percepción de la propia vida psíquica y, como es sabido, el descubrimiento del sujeto y de su interioridad ha sido el elemento característico de la modernidad. Citemos sólo algunos libros que ahora mismo encontrará expuestos como novedades en los escaparates de las librerías: Judy Wajcman, 'Esclavos del tiempo. Vidas aceleradas en la era del capitalismo digital'; Rüdiger Safranski, 'Tiempo. La dimensión temporal y el arte de vivir'; Luciano Concheiro, 'Contra el tiempo. Filosofía práctica del instante'; Graciela Speranza, 'Cronografías. Arte

y ficción de un tiempo sin tiempo'; Byung-Chul Han, 'El aroma del tiempo. Un ensayo filosófico sobre el arte de demorarse'; Simon Garfield, 'Cronometrados. Cómo el mundo se obsesionó con el tiempo'.

Aceptemos, tal vez, este predominio por la preocupación temporal. Seguramente es justificable. Pero constatemos también que la preocupación por el espacio también va en aumento. Razones no nos faltan.

El geolocalizador a menudo nos falla en un mundo de deslocalizaciones, de desplazamientos forzados, de flujos migratorios, de fragmentación, de discontinuidad, de volatilidad y de contextos donde proliferan los no lugares, espacios anónimos y amorfos, lugares transitorios sin límites, espacios de flujo que nos convierte en pasajeros en tránsito, pero no en habitantes de lugares; hacemos una sociedad desterritorializada gracias a un nuevo tipo de espacio: el ciberespacio.

La desterritorialización va acompañada de otro fenómeno, el de la depredación del espacio-tiempo. Daniel Innerarity



dice que somos 'okupas' del futuro, invasores de las propiedades pertenecientes a las futuras generaciones, que depredamos irresponsablemente en beneficio nuestro y dañamos así las posibilidades de vida futura.

Estamos obligados, pues, a repensar el espacio porque como en las patologías contemporáneas de la vivencia del tiempo necesitamos también resituarnos ante un mundo cada vez

más extraño y excesivo, donde sentimos a menudo la pérdida traumática del sentido del lugar.

Los dialectos del espacio son el territorio, el ambiente, el paisaje. Necesitamos repensar el espacio porque somos seres situados en el mundo, pero en constante redefinición de esta situación. En el pasado, pensábamos localmente y actuábamos localmente. Después, a principios de los años 70, llegó

la consigna "Piensa globalmente, actúa localmente", como una manera de conectar el sentimiento de espacio común (la Tierra) con la necesidad de actuaciones concretas y pequeñas ligadas al propio territorio. Más adelante, con la emergencia de la nueva globalización y con los famosos libros de Manuel Castells sobre la sociedad de la información o de Ulrich Beck sobre la globalización, se hizo evidente aún una tercera

La cultura que viene

Pilar Rahola

En la inauguración de las jornadas culturales "La cultura que viene", el conseller Santi Vila aseguró que se plantearían más preguntas que respuestas, y la afirmación ha sido cierta. Y ciertamente, a pesar de las reflexiones de los ilustres participantes, dichas preguntas se han resistido, quizás porque esta es la esencia misma de la cultura, su carácter indómito. Con todo, hemos podido recoger ideas fuerza sobre la dimensión social de la cultura, el reto de las empresas creativas, el encaje entre modernidad y tradición y la vitriólica cuestión de la identidad y la alteridad.

Dado que es imposible resumir estas intensas horas de reflexión con personas de primer nivel, me permitiré hacer una selección injusta, sin duda motivada por las disciplinas que me interesan. La primera la lanzó Julius Wiedemann, el presidente ejecutivo de la editorial Taschen, que aseguró que el libro no compite con el

libro sino con Starbucks. Es decir, que se trata de una competencia sobre lo que escogemos hacer cuando tenemos un rato, y que el libro debe robar tiempo a la vida veloz que nos define. Con un añadido: Taschen ha cerrado su variante digital.

Es decir, el libro tiene que crearse su condición de libro y, como tal, tiene que jugar fuerte en el terreno del ocio.

La segunda idea la pronunció Sam Abrams, tajante a la hora de asegurar que había muerto la posmodernidad pero que nos había dejado un hijo perverso: la posverdad. Y mano a mano con Vicenç Villatoro, intentó recorrer el tenue hilo que une la tradición con la modernidad, el pasado con el futuro, la herencia con la innovación. Recuperé una frase oportuna de Villatoro: "La tradición es la vacuna contra la ingenuidad de creer que todo empieza con nosotros", y ha sido entonces cuando el cineasta Al-

La tradición nos recuerda que no somos vírgenes y que venimos de muchos aprendizajes anteriores, pero los nuevos lenguajes nos permiten revivir un cierto reinicio, aunque sea a modo de engaño


bert Serra ha asegurado que la sofisticación de la tecnología digital nos ha permitido vivir una segunda inocencia. Es decir, la tradición nos recuerda que no somos vírgenes y que venimos de muchos aprendizajes anteriores, pero los nuevos lenguajes nos permiten revivir un cierto reinicio, aunque sea a modo de engaño.

Y a partir de aquí, mucho más. La reivindicación de Blai Bonet hecha por Abrams, "no tiene el lugar que se merece en la cultura catalana"; la bonita frase de la directora del Jeu de Paume, Marta Gili, asegurando que la cultura es la respiración del alma; la brillante Anna Cabré, explicándonos que somos un país de migrantes por propia elección, o el gran Michael Mason, director del centro folklórico del Smithsonian, recordándonos que la cultura es el vínculo entre la vida social y la vida interior. En definitiva, una sobredosis de inteligencia, bajo la mirada de

un gran mural de Joan Miró que pintó en aquella misma sala, décadas antes.

André Malraux dijo que la cultura sustraía al hombre de la simple condición de accidente del universo. Así lo ha parecido, al menos durante unas horas.

LA VANGUARDIA



Si nos fijamos en la literatura de pensamiento reciente, se diría que la dimensión temporal ha ganado en interés a la preocupación por el espacio

versión complementaria con la anterior: si actúas globalmente, necesitas pensar localmente. El ancla de la navegación global es el arraigo local. Si no queremos perder el rumbo, los argonautas de la globalización necesitamos transitar por el espacio combinando raíces y alas.

Tiene razón Joan Nogué cuando dice que el catalanismo contemporáneo no ha sabido incorporar a su discurso nacional

el elemento territorial, ambiental y paisajístico. No ha sido capaz de entender que, junto a la lengua o la historia, el territorio en general y el paisaje en particular son también una pieza clave de la identidad nacional. No sólo desde el punto de vista racional, sino también sensorial, emocional, estético, incluso espiritual.

El compromiso del catalanismo de los 2000 por una nueva

territorialidad nos obliga a repensar el espacio en todas sus dimensiones: en sentido 'macro' (como hacía Max Scheler en su libro 'El lugar del hombre en el cosmos'); en sentido 'meso' (repensando nuestro territorio y nuestras ciudades, el valor y la significación del espacio público), y en sentido 'micro' (mejorando nuestras viviendas, dignificando nuestros espacios privados).

Estar situados en el mundo significa reocupar con conciencia plena un espacio físico que se convierte en nuestro espacio existencial, nuestro lugar vivido, nuestro lugar de memoria, nuestro lugar sagrado, nuestro lugar de producción, etc. El espacio traducido en territorio y el territorio convertido en paisaje es la proyección cultural que hace un colectivo humano. Y, por tanto, se mezclan las dimensiones material, emocional, estética, ecológica, simbólica, histórica, productiva, social, axiológica y espiritual. Hay que ser conscientes de la importancia de cada una de ellas y aprender a cultivarlas bien.

El reto que tenemos es tomar conciencia de qué tipo de administración e intervención queremos hacer sobre nuestro espacio. El 'yin' de nuestra actuación espacial nos habla de

protección, conservación, preservación, planificación, recuperación, ordenación, mejora, etc. El 'yang', en cambio, nos recuerda la degradación, difuminación, contaminación, desolación, abandono, fragmentación, dispersión, depredación o destrucción que hemos hecho del espacio. Es tiempo, pues, de decidir. La oportunidad del momento actual es idónea y propicia para constituir, como en la cita bíblica, un nuevo tiempo y una nueva tierra. ¿Dejaremos escapar la oportunidad?

(*) Nota del traductor: la cita de Kant, utilizada por el autor, es más precisa. El "espacio" es la "forma a priori" de la sensibilidad 'externa', y el "tiempo" lo es de la 'interna'. Pero es evidente que el autor la utiliza en ese sentido correcto, como se ve en el siguiente párrafo.

ARA

Durango

Jose Mari Pastor

Laurogei urte igaro dira faxistek Durango bonbardatu zutenetik. 336 lagun hil zituzten. Handik hilabete eskasera naziek Gernikan eraginiko triskantza etorriko zen. Gerra krimen horien guztien erantzulea ohean hilko zen 38 urte geroago. Hura babestu eta haren magal krudelean hazi, handitu eta puztu ziren ministroetako batzuek alderdi politiko bat sortu zuten 1976an, Manuel Fraga Iribarren eskutik: Alianza Popular. 1989an Alderdi Popularra izena hartu zuen Francoren ministroen alderdiak. Errepublikaren kontrako estatu kolpea eta diktadura modu ofizialean inoiz kondenatu ez dituen alderdia. Nola egingo du, frankismoaren ideologia izan bazuen arrautza, eta diktadura habia?

«Estatu kolpe faxista baztertu, zibilen aurkako bonbardaketak salatu eta biktimak aintzat hartzeko» eskatu du Iñigo Urkulluk, Durangoko gerra krimenaren urteurrenean. Espainiako Gobernuari eraso salatzeko esan dio. Alferrik. PPK ez du halakorik egingo. Aitari aurpegiari txistua botatzea izan-

go litzateke PPK ofizialki frankismoa kondenatzea. Aitonari muturrekoa jotzea frankismoaren krimenak argi eta garbi arbuiatzea. PPK Fraga du aita. PPK Franco du aitona.

Euskal Herria desnazifikatu egin behar dela azaldu du, duela gutxi, Euskobarometroko zuzendari Francisco Llerak. Eremu geografiko txikiagia hautatu du bere lezio historiko soziologikoa emateko, eta agenteaz ere okertu da: Meliton Manzanaz izan zen Gestaporen kolaboratzailea, ez Txabi Etxebarrieta. Durango bonbardatu zuten faxista italiarrek; Gernika nazi alemaniarrek. 1936ko gerra amaitu ondoren, Francok errepresio latz odoltsua eragin zuen Hego Euskal Herrian. Eta Hitlerri eskua luzatu zion Hendaia okupatuan, 1940an. Ez, Espainian inoiz ez da desnazifikazio prozesurik izan. Garai bateko nazien lagunak, frankistak, birziklatu egin ziren, baina haien boterea, eragina eta itzala ez ziren desagertu. Demokraziak ez zituen diktaduraren lurak fumigatu. Ezinezkoa. Sortu berria zen erregimenaren hegazkinak lehenagoko

Euskal Herria desnazifikatu egin behar dela azaldu du, duela gutxi, Euskobarometroko zuzendari Francisco Llerak

erregimeneko kideek pilotatzen zizuten.

Hobe luke Llera jaunak desnazifikazioa Alacanten hasiko balu, PPKo kideen artean. Desnazifikazioa eta *desfrankifikazio*-a. Hiri horretako kale batzuei diktaduraren garaiko izenak berriz ipintzen hasi dira. Memoria Historikoaren Legeari segitu, eta izen horiek kentzea erabaki zuen udalak. PPK errekursoa jarri, eta epaileak arrazoia eman hari. Plaza bati *División Azul* izena ezarri diote oster. División Azul: naziei sobietarren kontrako borrokan laguntzeko Francok osatu zuen unitate militarra. Ez da ezer gertatzen, baina. Nazismoaren apologia onartzen dute, eta Carrero Blanco faxistaren kontrako atentuari buruzko txistek egiten dituen zigortzen dute.

Estatu espainiarrek ez du barkatzeko eskatuko Durangoko bonbardaketatik. PP alderdiak are gutxiago. Aurrera begiratu egin behar dela esaten dute, iraganari bueltaka ibili beharrean. Komeni zaienean hala jokatzeko du alderdi postfrankistak. ETA guztiz

desagertzea ez litzatekeela nahikoa izango adierazi du behin eta berrin Alfonso Alonsok. Erakunde armatuaren proiektu ideologikoa baztertu behar da. «Inposizio proiektu» horrek bizirik dirau eta batzuek erakundeetara eramaten dute. Onartezina. Hori uste du Alonso demokrata arabarrak. Haren aitona, Manuel Aranegi Coll, Arabako Aldundiaren presidentea izan zen frankismoaren garai gordinetan, 1957 eta 1966. urteak bitartean.

Durango bonbardatu zutela 80 urte bete ziren atzo. Gaur, apirilaren lehena, 78 urte dira gerra amaitu zela. Gaurkoa bezalako eguna *Día de la Victoria* zen Francoren garaiko egutegian. Frankistek oraindik ospatzen dute. Iaz mezu hau kaleratu zuen Francisco Franco fundazioak, Twitterren: *Día de la Victoria. Nosotros no olvidamos*. Hitz horien ondoan argazkiak zeuden ikusgai: diktadorea balkoian, garai-penaren desfileari so. Talde faxistari ez zaio ezer gertatu estatu kolpearen eta diktaduraren apologia egiteagatik. *Desfrankifikazio*-rik ez Espainian.

BERRIA

Pistola baten testamentua

Pako Aristi

Hilotza naiz dagoeneko. Jakin-
go duzue iraungitze data ezarri
digutela, oraingoan bai, eta api-
rilaren zortzian egingo digute-
la hileta, eta hileta serioa. Lur-
peratuak izanen gara betiko, ala
erraustuak apika, krematorioan.
Ez digute ezer zehatzik esan
oraindik. Agertuko ote dituzte
gure gorpuak denen bistara? Ho-
rixe nahi nik! Hamabost minutu-
ko loria! Guk ere badugu egoa.

Non jaio nintzen jakitea zai-
la da. Gu beti ilegalak izan gara,
ez dugu paperik izan, paper do-
tore horietakorik, fabrikaren
izenarekin, ekoizpen data, go-
bernuaren zigilu hanpurusare-
kin eta abar. Nire izena bai, hori
badakit: Sig Sauer, P228. Euro-
pako eta Estatu Batuetako elite-
ko poliziarentzat sortuak ginen,
erdi-automatikoak, baina nire
bizitza okertu egin zen; jauregi
ederretatik urrun bizi izan naiz.

Txekiakoak dira nire bizitzako
lehen oroitzapenak, gero Belfas-
ten ibilia ote naizen susmoa dau-
kat, eta azkenik Belgikan erosi
ninduten azken urteetako nire
jabeek. Ez nintzen bakarra: 230
kide ginen, egurrezko kaxetan
gordeak. Bai, bai, filmetan beza-
la. Gure bizitza *pelikuleroa* izan da
erabat; filma gehienetako prota-
gonistak gara, arazoak konpon-
tzen ditugu edo gaizkileak galbi-
dera kondenatzen, inozoek gure
bizkarrean uzten dituztelako eu-
ren hatz-markak. Gure presen-
tzariak gabe, ia ez dago errudunik
espetxean sartzerik, atera kontuak!

Gure artean ere klaseak zeuden,
batez ere bi: kide batzuek ofizia-
lak ziren, eta besteak, ni barne,
klandestinoak. Esan beharrik ez
dago ofizialak askoz ugariagoak
direla munduan, denak pilatuz
gero Himalaya halako bi osatu li-
tezke. Baina kuriozoso da, gu gi-
nen mandatariei buruhausteak
sortzen zizkietenak. Ez galdetu
zergatik, politikaz ez dakit ezer.
Klase ofizialekoak onartuak zi-
ren, jende aurrean erakutsiak des-
file arrandisuetan. Gure bizitza
bazterrekoa izan da, paria hutsak
ginen, txandalez eta polarrez jan-
tzitako zarpailen eskuetan beti.

Baina badakit gure kide asko ejer-
zitoen esku daudela, eta bizitza
lasaiagoa daramatela. Zer egiten
duen paper ofizial batek! Astero
garbitzen dituzte, astero olioatza-
tzen, eta mandatariek sekulako
errietak egiten dizkiete soldaduei
gu gaizki artatuz gero. Zer duin-
tasun, haiena! Lan berdina iza-


nik, bizi
baldintzak
askoz txarragoak zi-
ren guretzat. Ni hartzen nin-
dutenek, behintzat, nahi ezta
bezala hartzen ninduten, ka-
riño gutxirekin. Ezinbestez, gu
omen ginen bestela lortu ezin
zuten ez dakit zein helburu
lortzeko bidea. Tontakeria bat!

Ekoiztu nindutenean ez nuen
ulertzen zertarako zen aho luze
hura. Ergela ni, uste nuen han-
dik ardo goxoren bat edo lan-
pernak sartuko zizkidatela.
Baina ez, *bala* izeneko konpita
batzuk sartu zizkidaten atze-
tik, eta ttu eginarazi zidaten.
Hura eztanda mikatza lehenen-
goa! Gero ohitu egiten zara.

Baina denok, halere, inoiz ez
dugu lana egiteko gogorik izan.
Geure poltsatxoetan gordeta
egotea bezain gauza gozoagorik!
Estres handia pairatzen nuen, nik
behintzat, norbaitek gotor heldu
eta aire libreria ateratzen nindue-
nean. Inoiz ezin zenuen jakin zer
gertatuko zen. Ez nuen ezer ikus-
ten. Pistolakitsuak gara, badaki-
zue. Ez gara bat ere geure burua-
ren jabe. Erabili egiten gaituzte.

Errua eta gisako hitzak, tarteka
gizakiei entzun dizkiedanak, nik
ez nituen ulertzen. Ejerzitoetan
daudenek diote inoiz ez dute-
la hitz hori entzun, beste hiztegi
bat dutela, gu baino jantziagoak
dira, ohorea, aberria, mendekua,
geoestrategia, gerra humanita-
rio, presio psikologikoa... eta
esaldi hura: «Gerra politikaren ja-
rraipena da, beste bide batzuetatik».
Edo Corleoneren filma ba-
tean esaten zutena, jeneral baten
patrikatik entzun zuen nire kide
batek: «Politika da katua noiz sa-
katu jakitea». Tesi bat egin behar-
ko nuke hori ulertzeko! Esan
dizuet politikaz ez dakidala ezer.

Halere beti politikoz inguraturik
egon gara, edo helburu politi-
koak zituzten jendearen galtzar-
peetan, askotan gehiegi dutxatu
gabekoetan, alajaina! Politikoak



babestea
gutako batzuen lana, kon-
trakoa besteena. Maiz elka-
rren aurka jartzen gintuzten
tiroka, ez zen atsegina izaten.
Zergatik? Zer ibilera, lurrean
arrastaka batzuetan, odolaren
usain sarkorra iristen zitzaie-
dan maiz, edo utzi izan naute
zaborrontzi batean botata ere!

Nire izena bai,
hori badakit:
Sig Sauer, P228.
Europako eta Estatu
Batuetako eliteko
poliziarentzat
sortuak ginen,
erdi-automatikoak,
baina nire bizitza
okertu egin zen;
jauregi ederretatik
urrun bizi izan naiz.

Bai, badakit zer jakin nahi du-
zuen, morbosoa alaeak: zuen es-
pezieko zenbat hil ote ditudan.
Mesedez! Errespetu piska bat,
ez gal konpostura. Guk ez dugu
memoriarik, zuen lanak dira ho-
riek, gainera numerazioa ezaba-
tzen ziguten, eta hori ezabatzea
ADNa kentzea bezala da, ezin da
munduan izan dugun ibilbidea-
ren berri jakin. Hori bai, onar-
tzen ez dudana da gutako asko
hiltzailatzat gauzkatela, demo-
nioaren tresnak izan bagina be-
zala, eta beste batzuk, gu beza-
lakoxeak direnak, aberriaren sal-
batzailatzat. Oso arraroa da dena:
gu gorrotatzen gaituztenek, gero,
asko-asko maite dituztelako ni
bezalakoak, igual-igualak diren
kideak. Ez dut inoiz konprenitu.

Bukatu da. *Kaput* esaten zuen
nire jabeak maiz, eta *fini* bes-
te batzuetan. Mundu hobe-
a utziko bagenu, gaitzerdi! Baina
gutako batzuk suntsitu arren,
gizakiok ez zarete lasaiago ge-
ratuko. Gu, demografikoki, ira-
bazle gara, arma gehiago ekoiz-
ten baita, suntsitzen dena bai-
no. Badirudi hau ez zaizuela
gehiegi axola, baizik eta zeinen
esku geratzen diren ale berriak.
Baina ez zaitzete engaina: gure
helburua beti izango da, guk
hala nahi ez bagenu ere, hiltzea.

Hiltzea. Erraz esaten da, baina

horren gainean dago eraikia
munduaren oreka politikoa. Eta
hori nik politikaz ez dakidala as-
korik. Baina gauza asko entzun
ditut gutaz, eta gehienak onak.
Beldurra sortzeko erabiltzen gai-
tuztela, herrialde osoak mehatxa-
tzeko, soberania apur bat geratzen
zaienak makurtzeko. Pistola bat
gauza eskasa da, noski, baina oso
preziatuak gara krisi egoeretan.
Frantziako partisoanek, Irlandan
independentzia lortu zutenek,
zenbat estimazio historian zehar.
«Arma herriarentzat!», oihuka-
tzen zuten Bartzelonan 1936an.

Gu gabe bizitzen asmatuko ote
duzuen da kontua, eta zalantza
handiak ditut. Orain ongi ikusiak
baikaude, orain gaizki. Gu ugari
gauzkatenek gaitzesten baitu-
te beste batzuek ere edukitzea.
Konplikatu da, oso. Ni, honez-
kero, gauza hauek ulertu gabe
joango naiz, ulertu gabe, batzuek
dioten bezala, Euskal Herriaren
zerbitzaria izan ote naizen, ala,
bestetuk ozen diotenez, herriari
kalte eginda. Zuen arazoak dira
horiek, baina gauza guztien gai-
netik, opa dizuet on egin dagi-
zuela nire heriotzak.

BERRIA

Maltzaga posible da?



Eneko Bidegain

Erregulariki itzultzen da Maltzagan metafora euskal politikagintzara, ez beharbada alderdi politikoetako arduradunen ahora, baina bai politikaz interesatzen diren anitzen lumara.

Errepika ote daiteke Lizarra-Garaziko giroa? Itxura guztien arabera, ez. EAJk ez du berriz abiatu nahi Lizarran hasi zuen bezalako bidetik, ez duelako konfiantzarik Ezker abertzalearengan. Ezker abertzealek ere aski argi du independentziara buruzko bidea, hastapen batean bederen, EAJ gabe egin beharko dela. Eta iritzi horrekin bat egiten du Joxe Elorrieta ELAko idazkari nagusi ohiak. EAJko agintariek berek ere uzkur begiratzen dute Kataluniara, eta ez dira prest gisa bereko apustua egiteko. Iñigo Urkullu bera mintzatu da estatu independente baten kontra. Eta betiko korapiloa ezin askatuz ari gara.

Batzuen ustez, nekez egin daiteke bidea independentziara begira EAJren den mendreneko inplikazioz gabe; beste batzuen ustez, nehoiz ez da eginen urratsik independentziarantz, EAJren beha egonez.

Horregatik diote oraindik hasi behar dela lanean, EAJ gabe. Eta hain segur mugimendu sozial batetik sortu beharko da proiektu independentista, alderdi politikoaren lidergotik aparte.

Azken urteetan eztabaida handiak badaude: norekin egin independentziaren aldeko lana, norekin ez, zein diskurtsorekin, nola... Euskara, historia eta gai horiek bazterrean utzi behar direla diote batzuek; lehen planoan

“hobeki bizitzea” jarri behar dela, beren burua euskalduntzat ez daukatenak ere eroso senti daitezkeen proiektu independentistan.

Batzuen ustez, nekez egin daiteke bidea independentziara begira EAJren den mendren ko inplikazioz gabe; beste batzuen ustez, nehoiz ez da eginen urratsik independentziarantz, EAJren beha egonez

Energia anitz xahutu dute euskalgintzaren kontra, abertzale “existentzialisten” aurka... Baina hasi ote da lanik eta kanpainarik “beste jende” horrengana joateko?

Beharbada ordu da proiektu independentista bat sortzeko denen artean eta denen arteko errespetuan.

Horrek eskatzen du hiru dimentsioko Maltzaga bat: “existentzialisten” eta “kontruktibisten” arteko errespetutik hasi behar litzateke, tendentzia horien guztien artean diseinatzeko proiektu bat independentziaren aldeko argudioak biltzeko, euskal estatu bat irudikatzen eta independentziaren aldeko kanpaina zabal bat egiteko. Bigarren dimentsioko Maltzaga (Maltzaga-edo) izan behar litzateke alderdi abertzaleen artean, ez beharbada akordio batera heltzeko independentziari buruzko estrategia baten inguruan, ez eta ere erdibideko urratsen inguruan ados jartzeko, baina bai elkarren arteko errespetu eta elkarlan giro baterako. Bestela, independentziaren bide horretan kontrajartzen badira Ezker Abertzalea eta EAJ, eztabaida uzten bada mintzera, ondorioak pairatuko dira (lehen bezala gaur eta bihar ere) gainerako arlo gehienetan: euskalgintzan, komunikabideetan, karrikan, lan arloan, in-

gurumenean... Giro txar horretan bizitzera ohitu da euskal mugimendua, eta badirudi kostatzen zaigula giro horretatik ateratzea. Giro horretan segituz, ordea, kalte handiena herri mugimenduak jasaten du. Eta, ondorioz, herri proiektuak eta baita ere independentziaren proiektuak. Maltzaga bikoitz horrek balio behar luke giro sanoan lan egiteko independentziaren aldeko argudioen zabaltzeko, kanpaina politiko bat garatzeko, baina baita ere – eta bereziki – gure egitura eta tresna nazionalak indartzeko eta berriak sortzeko.

EAJk dio Euskal Autonomia Erkidegoan ari direla estatu egiturak sortzen. Hobe litzateke estatu egitura horiek Euskal Herri osoan eta Euskal Herri osorako sortzea. Horrela baizik ez da lortuko jende gehiago bihurtzea euskal estatuaren alde, paperean zehaztutako proiektu baten bidez baino gehiago.

Eta hor dago hirugarren Maltzaga: Euskal Herri osoko eragileen artekoa.

ENBATA

Brexit, estatua ala inperioa?

Beñi Agirre

Nik ez dakit testu hau idatzi eta zuen begietara iristerako tarte hone-tan gerra berri bat sortuta egongo ote den Europan. Gutun batekin hasi zen guztia. Theresa May Erresuma Batuko ministra Gorenak Europa Batasuneko ordezkariari Brexita zela eta helarazi zion gutunarekin. Espainiako aldezkarri garrantzitsuenetako iritzi artikulatu batzuetan hautsak harrotu zituen, “koloretako zelofanean bildutako pozoia” zela zioten batzuk, “zetazko eskularrutan ezkatututako burdinazko ukabila” zioten beste batzuk.

“Kontuz emakume ponpoxa honen hitz eztekin, Europako Ekonomia Elkartetik atera nahi du, baina ez Europatik”. Nazionalista espainiar-rrak asaldatuta hasi ziren ohika: “guk ordezkatzeko dugun Europa baino besterik ez dago. Zer uste du horrek? Joan behar badu joan dadila”. Oso espainiarra den handiustez puztuta ibili ziren orduan.

“Eta Erresuma Batua joaten bada, joan daitezela batasun horretako erresuma guztiak, alde Eskozia, Irlanda, Gales eta besteak, alde denak; eta Eskoziak independentzia lortu eta Europan sartzea eskatzen badu, guk geuk jarriko diogu betoa”. Horretan ari ziren supernazionalistak.

Halako batean, ordea, gutuna beste norbaitek irakurri zenean, ingelesez baitzegoen, non konturatzen diren Gibraltarrak ez dela aipatzen. To! Hau da gurea. Glasgow ere ez zen aipatzen, baina begibakarrez begiratzen zieten idatziari. Europako beste ministroen batek proposatu omen zien eskatzeko Gibraltarren gainean hartzen den edozein erabakian Espainiak beto eskubidea izatea. Baita laster asko eskatu ere. E!, hau Perejil baino askoz inportanteagoa da, esaten zuten. Denak ados; baina, horren trukean Eskoziak independentzia lortu eta Europan Batasunean sartzea eskatzen badu Espainiak baietz esango du. “Ba! Eskozia”, mespretxu keinua egin eta ados. Zer da bada, Eskozia Gibraltarren aldean?

Pasarte historiko hau egia da gutxi gorabehera, egia den bezala hurrengo egunean Espainiako txalupa patruilari bat sartu zela Britainiarren itsaso eremuan. “Utrechteko hitzarmenean idatzi ziren 10. artikuluko baina ez dio aitortzen Espainiak Erresuma Batuari”, “gure soberaniapeko eremuetan ohiko behatze lanetan ari ginen, ez dugu legez kanpo jokatu.” Kontua da, Britainiarrak gerra-fragata bat atera zutela Gibraltarreko uretara eta “erregearen bizarrak kiskaliko zituztela” mehatxua bota zutela serio demonio.

Handik egun batzuetara Kataluniako egunkari digital batean irakurri nuen sakoneko hausnarketa. Espainiak ez du estatu zentzurik, inperio direla uste dute oraindik. Inperio izan ziren, jakina, baina hura bukatu zitzairen eta espainolak ez dakite zer esan nahi duen estatu izatea. Oraindik ere Ameriketako izandako koloniak eurenak direla pentsatzen dute. Porqué no te callas esan zion errege hark Chavez.

Brexitarekin eta Gibraltarrekin gertatutakoa Euskal Herriarekin eta Kataluniarekin gertatzen zaie. Eurenak direla pentsatzen dute. Eta eurenak direla uste horretan nahi dutena egin dezaketela sinestuta daude. Espainiaren sena da maltzurkeria, pikarokeria, hantustekeria, ezberdinaren gaineko mesfidantza eta konplexua. Horiek denak balio dute inperio baterako, baina ez, estatu batek bere hiritarrekiko errespetua eta zaintza ziurtatzeko.

Espainiak ez daki estatu demokratiko bat gobernatzen. Horren adibideak asko dira: politikoen ustelkeriari babesa, armagabetea, Sandra Barrenetxearen epaia, zeinetan tortura akusatutak libre gelditu diren. Aztertu ezazu paradigma honekin; batetik Espainiak eta bestetik munduko beste estatu demokratikoek nola kudeatzen dituzten herrien independentziarako prozesuak. Ikusiko duzu: Espainiak ez du ulertzen nola kudeatu behar den estatu bat, inperioa nola inposatzen den bakarrik daki.

Arquitectura para la música, el kiosco

Iñaki Uriarte

Con motivo de la conferencia diaporama que sobre este tema organizan Nabarralde e Iturralde hoy en civiox Condestable de Iruña parece oportuno ofrecer algunas reflexiones sobre tan singular arquitectura urbana. En el período de la Ilustración coincidente con la urbanización y embellecimiento de pueblos y ciudades surgirán renovados espacios públicos abiertos con diversas dotaciones para usos sociales. Plazas nuevas, que se construirán principalmente en estilo neoclásico, y especialmente parques, paseos, alamedas y boulevares, en ocasiones dotados de jardines, impregnados de romanticismo.

En Euskal Herria el fin de la Segunda Guerra Carlista, en 1876, con la implantación de la industrialización, progreso de la economía y los nuevos hábitos sociales provocarán la necesidad de mejora de servicios públicos municipales como mercados, teatros o cementerios y la dotación de fuentes, bancos, farolas, etc. Corresponden al período de esplendor del hierro en la construcción, una nueva era para la arquitectura y la ingeniería por sus múltiples posibilidades. El uso y disfrute de estos espacios para la relación social con la implantación de novedosas costumbres populares y la aparición de medios de comunicación masivos como periódicos y revistas crearán aficiones y posibilidades diferentes, entre ellas, el gusto por el paseo y el recreo de los

sentidos. En estas circunstancias, se situarán en dichos lugares pequeños elementos habitualmente de madera o hierro, genéricamente llamados kioscos, para la venta de caprichos como refrescos, tabaco, flores, periódicos y también de necesidad, como servicios higiénicos. A su función social de equipamiento añaden un ineludible compromiso estético con el lugar convirtiéndose en una construcción pintoresca de decoro urbano. Los principales por su envergadura, trascendencia y permanencia han sido los dedicados a la música.

El kiosco es una construcción impulsada por los ayuntamientos destinada a la socialización y popularización de la música que históricamente había estado reducida a los ambientes palaciegos, los grandes conciertos para la burguesía, las ceremonias religiosas y los desfiles militares. Coincide con el reconocimiento de la música como materia de enseñanza con la creación de escuelas de música y como expresión cultural. El asentamiento de guarniciones militares en poblaciones importantes tuvo una trascendencia además de política y urbanística también social ya que habitualmente poseían agrupaciones musicales y sus actuaciones creaban un notable interés popular. La condición de capital o de lugar de ocio y veraneo aristocrático con playas, balnearios y casinos junto con la necesidad de ofrecer, además del reposo deseado un atractivo de divertimento refinado, fueron el estímulo coinci-

El kiosco es una construcción impulsada por los ayuntamientos destinada a la socialización y popularización de la música que históricamente había estado reducida a los ambientes palaciegos, los grandes conciertos para la burguesía, las ceremonias religiosas y los desfiles militares

dente para la creación de las bandas municipales de música como un patrimonio de prestigio y modernidad que celebraba de modo público, ameno y solemne todo acontecimiento notable de su ayuntamiento. Inicialmente los kioscos eran simples estructuras de madera posteriormente industrializadas por empresas fabricantes de objetos de fundición que los comercializaban publicando catálogos como elementos de dotación pública, modernamente conocidos como mobiliario urbano. Algunos en la base de sus columnas de fundición muestran en relieve y con orgullo el nombre de la empresa fabricante, su ciudad y el año. Habitualmente fueron proyectados por los arquitectos municipales u otros de reputado prestigio según la trascendencia que se quisiera dar a su presencia, en ocasiones tomando o modificando elementos del catálogo de dichas fábricas o en propuestas de nueva invención.

En casi todos los lugares se ha procedido a la sustitución del kiosco original, con motivos no muy justificados, por otro en ocasiones de características muy similares pero menos ligero y en algunas ocasiones por segunda vez. Los realizados a partir de 1940, en general serán de hormigón armado de mayor envergadura con menor esbeltez de los pilares y donde la escalera adquiere un mayor rango y presencia. Años después surgirán algunos sumamente innovadores por sus planteamientos urbanísticos, arquitect-

tónicos y acústicos. En la actualidad debido al escaso uso de los kioscos y cierto descuido municipal en su mantenimiento que en ocasiones los considera como una simple peana multiusos padecen una preocupante desfiguración. Desafortunadamente, casi ningún municipio los destaca como un elemento de interés cultural y apenas están protegidos urbanística y culturalmente.

El repertorio de kioscos en Euskal Herria es muy importante y variado y tiene como referencia suprema el de Guardia (Laguardia) de 1883 siendo el más antiguo de todos los existentes dedicado como templete para el busto del fabulista Félix Samaniego. Es un elemento de extraordinaria importancia en la cultura del hierro del siglo XIX en todo el Estado. Una sinfonía de romanticismo. Otros notable kioscos existentes son el del Parque de la Florida en Gasteiz (1890), Baiona (1892), Galdakao (1901), Alameda de Hondarribia (1901), Durango (1902) pésimamente restaurado, Urduña (1903), Irun (1903), Kanbo (1903), los tres en óptimo estado, el de Eibar (1903) trasladado a Beasain, Donostia (1907) en lo que fue el Boulevard, Biarritz Jardín Public (1908) Portugalete (1912), Azpeitia (1917), Santurtzi (1917), Araia (1918), Tudela (1921). El kiosco es una arquitectura que aún en la soledad de su silencio emite emoción y armoniza un lugar.

NOTICIAS DE NAVARRA

nabarralde
kultura.kimenakita.kustapenak.iniciativas.promociones.cultural.iniciativas.promociones.cultural.es

Eman izena nabarkide izateko
Hazte socio de Nabarralde

info@nabarralde.com · www.nabarralde.com · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruña/Pamplona/Pampelune · NAFARROA-NAVARRA-NAVARRA · DLNA: 2449/2005 · ISSN 1885-2181

Izen - abizenak Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección:

Herria / Población:

Posta kodea / Código postal:

Hizkuntza / Idioma:

E-mail:

Tel: Mugikorra / Móvil

Finkoa / Fijo

Kuota / Cuota (12€ Hilero / Mensuales) • **35 urtez azpikoek** / menores de 35 años (8€ Hilero / Mensuales)

Erakundeak / Entidades: (Hitzarmenaren arabera / Según convenio)

Kontu zenbakia / N° de cuenta (IBAN 24 dígito):

ENA / DNI:

Ekarpenak PFEZ aitorpenean kengarri dira / Las aportaciones son deducibles del IRPF